

# REVOLTA PERMANENT LOBOTOMIAK

Revolta Permanent (Barakaldo, Mungia, 2014). Herri Oihua taldeko Iker Villa, Iker Aginaga eta Mikel Becerra batu ziren Aitor Abiorekin (⌘ L.T., Matxura) Revolta Permanent osatzeko. Hirukote gaztearen rapari gehitu zitzaion Abioren elektronika, rock industrialak metalarekin nahasitako zaletasuna. Emaizta Revolta Permanent da, eta denbora laburrean diskoak bata bestearen gainean etorri dira. Lehenbizikoa "Genesis" (Gaua Records, 2014), gero "Kimera" (Gaua Records, 2016) eta hirugarrena "Ultravioleta" (Gaua Records, 2018). Revolta Permanent taldeak 150 kontzertutik gora jo ditu. Laugarren diskorako bosgarren kidea sartu dute. Orain arte batera akustikorik ez du izan taldeak, Guille Peñak (Mamagigi's, Dead Bronco) beteko du zeregina.

Revolta Permanent taldearen "Lobotomiak" laugarren diskoa Gaua estudioan grabatu da 2019ko iraila eta urria bitartean. Aitor Abiok egin ditu doinu guztiak eta baita ekoizpena ere. Hitzak Iker Villak eta Iker Aginagak idatzi dituzte, salbuespenak musikari laguntzaileen atalean zehaztuko dira. Asier Zubelzuk eta Aitor Abiok nahasi dute. Musikari laguntzaileen artean daude Aritz Mendiola (ahotsa "3,1416" eta "Adikzio berri bat" abestietan, eta azken honetan letra taldeko bi Ikerrekin batera), Maria Redondo ("Garrasi" abestian ahotza eta letra) eta Nora Abiok (ahotsak "Mundo roto" abestian). Irudia Daniel Hernandez "Lobotipo" diseinatzailearen lana da.

## ZULATZEN

Diskoari hasiera emateko kantua, ekaitzaren aurreko baretasun unea da.

## LOBOTOMIA

Gizarteko edozein kidek bidetik ateratzeko ausardia duenean, artaldeak baditu, modu batean edo bestean, ardi beltza bidera itzularazteko milaka mekanismo. Horiek dira gaurko lobotomiak. Taldeak batera akustikoarekin egin duen lehenengo kantua. Gordina, bizkorra eta zuzena.

## R

Kulparen kontzeptuaren inguruko kantua da hau. Kanpotik inposatutako erruak sortzen duen ezintasunaz eta horren aurkako erresistentziaz. Lanik melodikoenetakoa, ahotsek ohi baino indar handiagoa hartzen dute.

## AUKERAK

Noizbait amestu genuen horren guztiaren jabe izateak mugiarazten gaituela askotan, nahi duguna eta aukeran dagoenaren arteko gerra da, gure desirak laztandu eta dastatu, edo etortzen denari ongi etorria eman, konforme ez egon arren. Merez du, benetan, gure irudimenean eraikitzen diren utopiengatik borrokatzeak? Aitor Abioren aurreko proiektu musikala sumatu daiteke, Matxura. Erritmo bizkorra eta soinu industrialak.

## MUNDO ROTO

Mundua apurtu da eta baliteke konponbiderik ez izatea. Horrek haserrea pizten du eta, konponbiderik ezean, erruduna aurkitu eta

ezabatzea izan daiteke baretzeko era bakarra. Abesti zikina, gogorra, errukigabea. Punk jarrerako soinu elektronikoa. Kantuaren oldarkortasunarekin kontrastea egiten du Nora Abioren ahotsak.

## GORROTOA

Garai latzen ondoren, aurpegia garbitu, mina itzali eta kontraerasoa prestatzen dugu. Gorrotoak gidatzen du abestia, bai musikalki, baita letra eta abesteko erari dagokienez.

## GARRASI

Emakume baten oihua izan nahi du kantu honek, horregatik, bolaluma, papera eta mikrofonoa eman diogu Maria Redondori. Maria: "Emakumeon borroka eta bizitzako esparru askotan (bereziki musikan) dugun garrantzia plazaratzeko oihua da. Heteropatriarkatu kapitalistak betidanik markaturiko errepresio eta zapalkuntzari aurre egin eta harekin amaitzeko unea da. Emakumeon indarrari musika jartzeko saiakera bat. Ez dugu ez ahazten, ez barkatzen".

## MORALAREN SALBATZAILE

Inor ez da kontraesanaz eta inkoherentziaz salbu bizi. Hala ere, badira kontziente direnak eta horrekin bizitzen saiatzen direnak eta badira egia absolutuaren jabetzat dituztenak euren buruak. Azken hauek dira moralaren salbatzaileak, gainerakoak hezi behar dutela uste dutenak. Hip-Hop hutsetik hurbilen dagoen kantua da, erritmo astun baten gainean osagai ugari jantzen dute abestia.

Revolta Permanent taldearen laugarren diskoak "Lobotomiak" du izenburua, eta musikak bi oinarri nagusi ditu. Bat. Hitzetresna komunikatzailea rapa da. Hitzek berebiziko garrantzia dute Revolta Permanent bezalako talde batentzat, eta, gainera, izen hori edukita gehiago. Bi. Musika elektronikoaren erabilera zabala da. Gaurko teknologiarekin eraiki dira soinu eta melodiak. Elektronika garaikidearekin batera musika industrialak elektronikarekin topo egin zuteneko hamaika eragin daude Revolta Permanent taldearen "Lobotomiak" diskoan. Batez ere Belgika eta Alemanian piztutako elektronikaren sua 1980 eta 1990eko hamarkada haieztatik datozkio oraingo keak Revolta Permanent taldeari. Letra sutu eta engaiatuak elektronikarekin uztartzea da Revoltaren musikaren mami eta osagaiak. Musika elektronikoak, rock industrialak eta trip-hop soinuak iraultzarako garrasia dira, adikzioa dakar moral salbatzaileari gorrotoa izatea mundua apurtu digutelako, eta beti dago aukera mailua erabiltzeko.

## MAILUA

Kantua iraultzarako deia da, errebelatzeko deia. Bandoa aukeratzera ere gonbidatzen du entzulea, sistema eustea edo haustea, horiek aukerak. Soinuetan iluntasuna, erritmo aldrebesak eta distortsioa. Kanturik elektronikoena.

## ADIKZIO BERRI BAT

Revolta Permanent 2007an sortu genuen Herri Oihua taldearekin, 12 urte igaro dira. Onak eta txarrak bizitu ditugu bidean. Batzuk etorri dira, beste batzuk joan, baina Revoltak gurekin jarraitzen du. Taldeari berari eskainitako abesti zuzena da, hip hop doinu indartsu eta zorrotzekin. Aritz Mendiolaren ahotsak balio erantsia ematen dio kantuari, Revoltan ohikoak ez diren koloreak gehituz.

## 3,1416

Hil da Jainkoa.

Aitor Abio (sekuentziak eta teklatuak)  
Guille Peña (bateria)  
Mikel Becerra (gitarra)  
Iker Villa (ahotsa)  
Iker Aginaga (ahotsa)

ritxi aizpuru + revolta permanent  
(2019ko azaroaren 5a)



Telf. 659 975 820 - 618 072 026 / 221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)  
www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus

